



Durangaldeko balkoia

GARAI

Ezaugarriak

Garai Durangaldeko balkoi naturala da. Bi **begiratoki ederrek** ematen diote balkoi izaera: Momoitio basiliza ondoko landak eta udaletxe alboko zabalgunek. Bietatik, **Anboto mendilerro zabala ikusi daiteke, barreneko haran zabalarekin batera.**

Garai historia eta artez beteriko herri txikia da. IX. mendean, dagoeneko bazen auzo edo herrixka bat Momoitio, 80ko hamarkadan bertan egin ziren indusketek erakutsi zuten hori.

Herri txikia da, baina baserri etxe eleganteak mantentzen dira oraindik. Margolan askoren kokaleku ere izan da, eta ezagunenak Zubiaurretarrenak. Bertan dago euren jaiotetxea.

Bisitan nabarmentzekoak:

- Momoitioko San Juango nekropolia
- San Migel eliza
- Udaletxea
- Garatikua jauregia
- Zubiaurretarren etxea



 Irteera puntua: Momoitioko San Juan basiliza

 Iraupena: 90 minutu

 Zailtasun maila: Ertaina*

 Taldea: Gehienez 25 pertsona

 Hizkuntza: Euskara, gaztelera

 Prezioa: 185 € (BEZ barne)

 Oharra: Ibilgailua hartuko dugu. Hasiera eta amaiera puntua ezberdinak dira.

Oharra

Bisita hau zure beharrianetara egokitzen ez bada, egiguzu kontsulta eta aztertuko dugu egokitze aukera. Eskaintzen ditugun bisita gidatuez gain, norbere beharrianen neurrira bisitak prestatzeko aukera eskaintzen dugu. Idatzi edo deitu lasai: info@gerediaga.eus / 946818066